

noaua

Zirrara metodologia,
udal dirulaguntzen
eraginkortasuna
neurtzen duen programa

'Sagarrondotik
sagardora' ikastaroa
larunbatean hasiko da



Argazkia: Lurdes Huera

**Mozorroa jantzi
eta festara irteteko garaia iritsi da**

Kenia



943 373 613

IRTEERA MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)






·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK




Lizarralde
ORTOPEDIA

Bizi kalitatea hobetuz

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 10:30-13:00

-  Teknikari ortopeda kontsulta
-  Arreta pertsonal eta espezializatua
-  Online eta telefono bidezko aholkularitza
-  Salmenta ondorengo zerbitzua
-  Etxera banaketa

-  Eskailera igogailuen instalazioa
-  Komun eta etxebizitzaren egokitzapena
-  Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza
-  Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza
-  Zapata eta ortesi gama zabala

ALOKAIRUAN:
gurpildun
aulkia,
ohe artikulatuak

Lizarralde Ortopedia
Kazkazuri plaza 1 - behea
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
andoni@lizarraldeortopedia.eus
www.lizarraldeortopedia.eus

Albiste iruditzen

Iaz trenak harrapatu zuen ekintzailea epaitu egingo dute

Iazko maiatzean, Mozal Legearen aurkako protesta ekintza bat egin zuten Usurbilgo tren geltokian. Tren gidariak ez zuen tren erreietan zegoen gaztea ikusi eta aurrera egin zuen. Ezbeharraren ondorioz, gazte batek hiru astez ospitalean egon behar izan zuen. Zauritutako gaztea martxoaren 5ean epaituko dute Donostian.

Ezbeharra, Donostiako Eleak-Libre Mugimenduko 15 laguneko taldea Usurbilgo geltokira heldutako trenaren alde batean Mozal Legearen aurkako "EAJ, Mozal Legeari ez" pintaketa egiten ari zela gertatu zen. Hiru aste eman zituen ospitalean, 12 egun koma induzituan, haietako bi zainketa berezietan unitatean. Bera eta anbulantziaren zain berarekin geratu zen laguna martxoaren 5ean epaituko dituzte Donostian kalteengatik, Argiak berri eman duenez. Euskotreneko bi ordezkari



Sagardo Egunean, babesa adierazi zioten ekintzaile zaurituari.

ere epaiketara deklaratzera deitu dituzte.

Ekintzaile zaurituari babesa adierazi eta Mozal Legea salatzeko hainbat mo-

bilizazio egin ziren iazko maiatzean. Tartean, Usurbilgo 36. Sagardo Egunean. Udalak ere mozioa onartu zuen.

Laburrean

Otsailaren 24an, 1956an jaiotako afaria

Otsailaren 24an biltzeko hitzordua finkatu dute 1956an jaiotako usurbildarrek, Saizar jatetxean egingo duten afarian. Izen ematea aurrez bideratu, otsailaren 22a baino lehen, 943 362 555 (Mari Karmen) telefono zenbakira deituta.

Martxoak 10, 1975ean jaiotako bazkaria

1975ean jaiotakoek bazkaria antolatuko dute sagardotegian. Martxoaren 10ean batuko dira, larunbatarekin. Izena emateko deitu edo bestela mezua whatsapp bidez edo mezulari zerbitzutik bidali, zenbaki honetara: 608 045 479 (Igor).

1973an jaiotako bazkaria

1973an jaiotakoek bazkaria sagardotegian egingo da, martxoaren 10ean. Izena emateko whatsapp edo mezua bidali: 615 756 893 (Mamen/Gema). "Animatu zaitezte, egun bikaina pasako dugu!"

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noqua.eus ||| www.noqua.eus

Jendurako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Iñaki Irazusta, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Luken Arkarazo

Sortzaileen Katalogoa

Bagenuen horrelako zerbaiten beharra. Maiz aipatu izan dugu Euskal Kultura, zinez distiratsu eta emankorra, babes-tu beharreko altxorra dela. Zer esanik ez, nazio izaera bereizi bat duen sorkuntza mugimendua bizi bat duen Usurbil bezalako herri kulturgile eta kultur zale batean. Hala ere, bada itzal bat azken bi hamarkadetan zabaltzen joan dena, hasieran pixkanaka, eta orain abia-da bizian, barreiatu delarik gure gizartean. Itzal hori, Kultura Globalaren ideiarenean, mundu mailako kultur homogeneizatu (nagusi anglosaxoi) baten bila, nagusitzen joan da Iraultza Teknologikoak eman dion hauspoa probestuz. Izan ere, komunikabide nagusi gehienek baitan zabaldu den itzal honek ez du errukirik, eta basamortuko hareak ekaitz basatien antzera, babesten ez den oro hare bilakatzen du.

Masa kontsumoaren baitan oinarritutako Kultura Global hau gurea bezalako kultur sare txikiak irenstetik elikatzen da, aniztasunaren ideia erakar-garriaren baitan ezkutaturik. Azken finean, konturatu ez bazara, euskal sortzaile bat topatu nahi baduzu, hamarretik bederatzik kasuetan bere bila joan beharko duzu. Aldiz, Kultura Global horren parte izatea lortu duten sortzaileak etengabe zure inguruan ikusten, entzuten eta somatzen dituzu. Zeintzuk dira gure gaztetxoek erreferenteak? Gizarte likido honetan, tendentziek eta unean unekoek agintzen duten honetan, nazio txiki, zatitu eta zapaldu batek mekanismoak sortu behar ditu, ez soilik bizirauteko, baita zabaldu eta indartzeko ere. Gudu zelai berrietara egokitu beharra dugu duguna mantendu eta galdu genuena berreskuratzeko.

Ezinbesteko tresna horietako bat aurkeztu zen pasaden astean Martin Ugalde An-

doingo Kultur Parkean. Berria Fundazioak emandako Berria Beka (12.000 euro) baliatuz Gotzon Barandiaranek, kultur adierazpide guztietako euskal sortzaileen berri emango duen katalogo digitala sortu eta abiarazi du: sortzaileak.eus.

Literatura, musika, antzerkia, arte plastikoak, bertsolaritza dantza eta ikus-entzunezko ataletan banatuta. Une honetan 1.942 egileren datuak, irudiak eta estekak daude kontsulta gai. Lehenengo fase honetan, bizirik dauden eta azken hamabost urteetan zerbait argitaratu edo kaleratu duten sortzaileak hartu dituzte aintzat. Gerora, euskal sortzaile guztiak jasotzea litzateke helburua. Gaur egun aktibo dauden kultur sortzaileen berri eman nahi du webguneak, baina iraganari uko egin gabe.

Sortzaileen Katalogoa argazki oso, integral bat izateko helburuarekin jaio da eta are garrantzitsuagoa, nazio ikuspegi bat edukiko du. Hots,

bertan soilik artista euskaldunek hartuko baitute parte. Hitza erabiltzen ez den adierazpideetan sortzailearen eskuetan utziko da erabakia, euskaldun onartzen den orok tokia izango duelarik. Artista bakoitzak fitxa bat du, eta fitxa horretan bere disziplinari loturiko atari digitalera (Badok, Armiarma, Bertsozale Elkar-tea...) eramango zaituen lotura bat aurkituko duzu, non bertan klikatuz sortzailearen xehetasunetara helduko zaren.

Tresna egokia sortzaileen barne eta kanpo ikusgarritasunarentzako, kazetarietara bilaketa lanak errazteko, herri mugimendu eta eragileen antolakuntzan laguntzeko eta erakunde publikoen jardunerako. Baina baita transmisiorako ere, hezkuntza arautu zein etxegiroko transmisiorako. Tresna egokia itzalpean argitzen hasteko, argia izateko.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | **Luken Arkarazo**

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: otsailak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 12.



Kima
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Gure Esku Dagoren hitzaldi zikloa, Herritarron Ituna lantzeko abiapuntu

Zergatik eta zertarako erabaki, gai honi buruz hausnartzeari ekin dio Gure Esku Dago mugimendua. Erabakitzeko 2019 arrazoi bildu nahi dituzte aurten, herriz herri, eskualdez eskualde bideratu asmo duten lanke-taren bidez. Prozesu horretatik sortuko da gero, Herritarron Ituna deiturikoa. Aipatu moduan, erabakitzeko hamaika zergati bilduko dituen ituna. Itun honen lanketa girotzen hasteko solasaldi zikloa antolatu du Gure Esku Dago dagoen asteotarako, “Zergatik erabaki?” izenburupean.



Otsailaren 14an, herritartasunaren inguruko eztabaida iragarri dute. Sutegin jarraitu ahal izango da, streaming bidez.

Lehenengo saioa, ongizatea hizpide nagusi zuena, urtarrilaren 31n egin zuten Bilbon. Kulturaren ingurukoa otsailaren 7an Donostian.

Hurrengo solasaldiak, otsai-

laren 14an, herritartasunaren ingurukoa Iruñeko Baluartean, eta hilaren 21ean, “Gure lurra” izenburupean Gasteizko Europa Jauregian.

Orain artekoekin egin beza-

la, hitzorduok ere streaming bidez zuzenean ikusteko aukera izango da 19:00etan hasita Sutegin, Usurbilgo Gure Esku Dago taldearen es-
kutik.

Informazio gehiago:

gureeskudago.eus

@GureEskuDago

@GureEskuDagoU

Facebook: Gureeskudago/

Gure Esku Dago Usurbil

Ika-mika

Joxean eta Alejandro

Dagoeneko burua hotz, ingurura begiratu eta berriro ere topiko errazetara jo dugula ikusten da. Maiz gertatzen zaigu: omenaren jasotzailea ondo ezagutu ez, baina hari buruz zerbait esan behar, egiaz nahi duguna geure burua agertzea baita, omendua zokoratuta.

Poeta baldin bada beste aldar-te edo egokiera batean jartzen gaituen artista, Joxean poeta jasoa zen, zintzoa, abertzale eta euskaltzale sutsua, bertsozalea, txalaparta formaz eta edukiz berri zuena, ganibetarekin harakin trebe eta umoretsua, nabarmen edo egolatra xamarra garai heroiko batean, hiztun aspergaitza eta, arte-sormenean, aitzindari, 20 urtez aurretik

zihuana, zernahiri muturra zorrotzen ziona. Artzetarren harategiaren atzealdean egosi zen euskal kulturaren parte garrantzitsu bat, bertara biltzen zirelarik garai hartako artista eta pentsalari askotxo.

Joxeanen laudorio eta gorespenak egitean, zokoan ahaztuta geratu da bat, ez txikiena: trikitixa Joxean Artzeri esker suspertu zen.

1968ra arte Donostiako Euskal Jaien osagaiak “betikoak” ziren: meza, txakolin, gazta eta sagardoan lehiaketa, idi proba, salvia, etc.

Orduan, hiriburua hartako funtzionarioak euskal jaien antolatzaile berria hartu zuen, beste giro bat eman ziezaien. Antolatzailea Loiola Irratiko

factotuma eta Joxean Artzerekin elkartu zen, ideien egarriz. Bilera hari esker, euskal jaien panoraman agertu ziren gauza berri ugarietako bat Trikitilarien I. Txapelketa arrakastatsua izan zen: lehen edizioan, 1.600 sarrerera ordaindu ziren. Handik 20 urtera, 8.000 lagun elkartu ziren Belodromoan. Ordura arte, erdaraz pixkanaka hiltzen ari zen (No te cases con la Luchi porque tiene diru gutxi...) baserri giroko musika dekadentea.

Eta makina bat soinu eta pandero jole eta saltzaile euskaldun eta erdaldun, hamaika kontzertu, esna-dei, pasakalle, manifa, zaletu eta umore on ugalduraren Euskal Herrian barrena.

Joxeaneke ideia horren aldeko egin ez balu? Ba... seguruenik,

trikitirik ez legoke gaur.

Alejandro, berriz, isila, umila, Joxean bezain euskaltzale, abertzale eta ondradua, laguntzeko beti pronto, klase-kontzientzia praktikatzen zuena, bizitzaren erdi nekoso mikatz lakarra bere estudioan eman zuena. Zarata handirik ez. Poliziak egin zion monumentua, Tapiak eginiko murala kakaztu zuenean. Utz dezagun hor, herritarrak zer egiten duen eta Poliziak zer egiten duen bereizteko.

Zer, ez dakit, baina herriak zerbait zor dizue, zuei esker hobeto bizitzeko aukera dugulako aurrerantzean.

Adio, maixuk!

Eguneko Zentroa kudeatzeko kontratua GSR-ri esleitu zaio

Eguneko Zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emateko kontratua GSR, Gestion de Servicios Residenciales, S. Coop-i esleitzea erabaki zuen aho batez Usurbilgo Udaleko udalbatzak, urtarrilaren 30eko osoko bilkuran. Kalezarko Haur Eskolaren eraikin berean kokatzen den gunea ireki zutenetik gaur arte kudeatu dutenek, orain arte egindako lanari segida emateko aukera izango dute honenbestez, beste 3 urtez gutxienik (5 urtera arte luzagarri).

Urriaren 4ko ezohiko osoko bilkuran lizitazio honen oinarriak onartu, deialdira GSR enpresa bakarrik aurkeztu eta eskaintza honi abenduaren 19ko ezohiko osoko bilkuran baiezkoa eman ostean, 10 eguneko epea zuen aipatu enpresak beharrezko agiriak aurkezteko. Urrats hau egoki bete ondoren, urtarrilaren



Urtarrilaren 30eko osoko bilkuran hartu zen behin betiko erabakia.

AHO BATEZ ONARTUA

“Urtarrilaren 30eko osoko bilkuran aho batez GSR enpresari esleitu zaio Puntapax kudeatzeko esleipen kontratua”

30eko osoko bilkuran aho batez GSR enpresari esleitu zaio Puntapax kudeatzeko esleipen kontratua.

Kontratua sinatzea baino ez da falta

Hurrengo pausoa, kontratua sinatzea izango da eta aipatu enpresari jarria zuen behin behineko bermea itzultzea. Kontratua sinatu ostean, “formalizazio hori udaleko Kontratatuzailearen Profilean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta legez dagokion gainerako bitartekoetan” argitaratuko du Usurbilgo Udalak.

Aurrekontuak behin betiko onartuak

Udalak finkatua zuen epe barruan erreklamaziorik egon ez denez, behin betiko onartu dituzte 2018rako aurrekontuak: 11.312.981 euro.

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko udal ordenantza

Orain arte hilerri berriko tannatorioan edota Askatasuna plazan (behar balitz itxiturerekin) antolatu zitezkeen hileta zibilak. Aurrerantzean baita Sutegiko auditorioan eta Errautsen Parke berrian ere; astelehenetik larunbatera, goiz (11:00-13:00) edota arratsaldean (18:00-20:00). Otsailaren 2an argitaratu zuen behin betiko onarpen honen iragarkia Udalak.

Hilerriaren erregimen eta funtzionamendu araudia hasieraz aldatzea ere onartu zuen udalbatzak. Otsailaren 2an alegazioetarako 30 eguneko epea zabaltzea erabaki zuen Udalak.

Udal diru-laguntzen oinarriak argitaratzera doaz

Urtarrilaren 30eko Tokiko Gobernu Batzarrean zazpi diru-laguntza deialdien oinarriak onartu zituzten. Aldaketarik ez bada, otsailaren 12an argitaratu ditzakete deialdiok Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalleteko iragarki taulan. Une horretatik aurrera, eskabideak aurkezteko 20 eguneko epea izango dute interesdunek.

■ Deserrotze eta baztertze

sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko diru-laguntza deialdia (laguntza lerro berria): Erabaki judicial bat betetzearen ondorioz (barneratzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) herritik kanpo egon eta beraren ingurune familiarra etorri ezin diren usurbildarren senideek egiten dituzten joan-etorrien gastuak

ordaintzeko diru-laguntza deialdia. Laguntza hauen onuradunak izan daitezke, lehentasun ordena honetan: ezkontidea edo izatezko bikotea, seme-alabak, aita-amak, neba-arrebak, beste senitarteko batzuk. “Onuradun bakarra egon daiteke barneratu bakoitzeko”.

■ Igogailuak instalatzeko diru-laguntza deialdia.

■ Gizarte zerbitzuen arloan

egitasmoak burutzeko diru-laguntza deialdia.

■ Nekazaritza-abeltzaintza arloko egitasmoak laguntzeko diru-laguntza deialdia.

■ Ingurumen arloko egitasmoak laguntzeko diru-laguntza deialdia.

■ Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza deialdia.

■ Kirrol egitasmoak garatzeko diru-laguntza deialdia.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia
LARE.GOXO


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


Patriarra jateketa
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 638 690 361

Udalbiltzak 2018rako lan ildoen berri eman du

Esku artean dituzten 2018rako proiektu nagusiak zeintzuk izango diren aurreratu ditu Usurbilgo Udala kide duen Udalbiltza erakundeak. Iaz landu zuten “Bagabiltza” prozesuaren ondotik, hurrengo hamarkadarako lan ildoak zehaztu zituzten azaroan egin zuten batzar nagusian.

Aurtengoari dagokionez, besteak beste, lau egitasmo jorratu asmo dituela berri eman dute Udalbiltzatik. Batetik, aspaldiko proiektu bat berreskuratu asmo du Udalbiltzak; EHNA, Euskal Herriko naziotasun aitortpena.

Bestetik, Udalbiltzaren nahiz beste erakunde eta eragileen esperientziak bildu eta elkartrukea sustatuko duen Esperientzia Bankua. Helburu nagusia, egin den lana ezagutarazi eta saretzea litzateke. “Esperientzien bankua tresna oso interesgarria izan daiteke, besteak beste, esperientzia ezberdinak biltzeko, Udalbiltzaren egitasmoak herriratzeko, eskualdeen arteko ezagutza eta harremanak sustatzeko, hautetsiak formatzeko eta udalek beraien erronkak eta lanak egiteko informazio eta harreman interesgarriak lortzeko”.



EHNA egitasmoa berreskuratu, Esperientzia Bankua sortu, Euskal Herriko mapa turistikoa osatu eta “Euskaldunen Historia” memoriale eraiki nahi dute.

UDALBILTZA

“Bagabiltza” prozesuaren ondotik, hurrengo hamarkadarako lan ildoak zehaztu zituzten iazko azaroko batzar nagusian

Mapa turistikoa

Euskal Herri osoa aintzakotat hartuko duen euskarri turistikoa ere sortu nahi du Udalbiltzak; Euskal Herriko mapa turistikoa. “Ipar Euskal Herriko Hirigune Elkargoa mapa turistiko baten proiektua garatzen ari da. Mapan agertuko dira elkargoko eremu geografikoa auzoko herrialde batzuekin batera. Udalbiltzaren asmoa da proiektu honetan parte hartzea

Elkargoarekin lankidetzan, betiere, osagarritasunaren irizpidearekin. Hortaz, Udalbiltzak asmoa du paper formatuko mapa osatzeaz gain, aplikazio digital bat ere sortzea, turismo bulegoen eta eragileen esku jartzeko”, berri eman dute erakundetik.

Azkenik, euskaldunen iragana kontatuz etorkizunera begira jarriko gaituen “Euskaldunen Historia” memoriale eraiki asmo dute baita Senperen. “Euskaldunen historia azaltzeko lau panel izango dira, zeinen bidez 22 bideo ikusgai izango diren, QR kode baten bitartez. Honi guztiari testu eta audioek lagunduko diote. Zizelkadura bat izango da lau panelen erdian”.

5.000 lagun, erraustegiari buruzko eztabaida eske

Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiaren eraginari buruzko eztabaida publikoa eta teknikoa eskaintzea eskatzeko bildutako sinadura kopuruak gorantz segitzen du. Ipar Haizea plataformak change.org atarian abiatutako ekimenaren baitan, erraustegiaren alde eta kontrako jarrerak bildu eta kontrastatuko dituen eztabaida hau telebista bidez emititzea galdegiten dute jada 5.000 lagunek.

Otsailaren 24an, manifestazioa Donostian

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak ere bat egina du deialdi honekin. Gogoan izan, manifestazioa deitu dutela otsailaren 24rako. 17:30etan abiatuko da Donostiako Gipuzkoa Plazatik, “Erraustegia gelditu. Birziklapena sustatu” aldarripean.

Hitzartu diruz laguntzeko, beste astebeteko epea

Eskuhartze prozesua abiatu ahal izateko ezinbestekoa zuten gutxieneko laguntza bildu arren, zabalik segitzen du Hitzartu diruz laguntzeko kanpainak. Jada 15.400 euro bilduak zituzten aste hasierarako, baina oraindik ekarpenak egin ahalko dira otsailaren 15era arte bideo-tatik:

Laboral Kutxa:

ES05 3035 0140 33 1400031124
Kutxabank:

ES83 2095 5060 10 9117692165
itsulapikoa.eus

Informazio gehiago:

hitzartu.eus

hitzartu@hitzartu.eus

Mendekotasunen Prebentziorako plana eraberritzeko bilera

Usurbilgo Udalak deitutako hitzordua, otsailaren 15ean 13:00ean Potxoenean. Bilera irekia izango da, herritar eta eragile ororentzat. Bertaratu asmo duenari aurrez baieztatzea eskatzen zaio, Gizarte Zerbitzuetara deituta, 943 377 110 telefono zenbakira.

Udalak 2013an 4 urterako onarturiko Mendekotasunen Prebentziorako lehen planaren indarraldia amaituta, hura ebaluatu eta berri nahi du, herritar eta eragileekin.

Planaren idazketa prozesua, drogamenekotasunen eremuan lanean diharduen Agipad

elkartek dinamizatuko du.

Iritziak partekatzeko asmoa

Saio honetan hain zuzen, drogamenekotasunaz herritarrek duten iritzia partekatu eta arlo bakoitzean jarri beharreko prebentzio estrategiak aztertu nahi dira.

Erraustegiaren eraikitze lanetan prekarietateak babes politikoa duela salatatu du LAB-ek

Zubietako errauste plantako obran, “Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako obra, ez da Lan Prebentzioko Legea betetzen, ezta beste segurtasun arau eta lan osasunekoak ere. Berritoki ere, interes politikoak eta ekonomikoak langileen segurtasun eta osasunaren gainetik jartzen ari dira, eta presak, lan baldintzak eta lan eskubide gabeziak, prekarietatea azken finean, salatzaren ditugu”, berri eman du LAB sindikatuak, agerraldi bidez.

Gipuzkoako eraikuntza sektoreko hitzarmena ez dela betetzen salatatu du LAB sindikatuak eta azken aldi hainbatetan aurkeztu ditu salaketak Lan Ikuskaritzan. Abenduaren 4an, “zehazki hitzarmenaren soldaten azpitik ordaintzen ari zirelako, eta lanaldiak hitzarmenekoak baino altuagoak zirelako”. Abenduaren 20an, obrako garabiek (5 daude) legeak dioena ez dutelako betetzen. Eta urtarrilaren 11n, obrak berehala gertatzea eskatzeko idatzia aurkeztu zuten Lan Ikuskaritzan, “bere-



Azken hilabeteotan, LAB sindikatuak hainbat salaketa aurkeztu ditu Lan Ikuskaritzan.

LAB SINDIKATUA

“Interes politikoak eta ekonomikoak langileen segurtasun eta osasunaren gainetik jartzen ari dira”

halako arrisku larriagatik”. LAB sindikatuko esanetan, “urtarrilaren 10ean obrara egindako bisitan, garabiek bere horretan mantentzen zirela ikusteaz gain, anemometroek ez dutela funtzionatzen ikusi genuen. Anemometroek haizearen indarra neurtzen dute, eta alarma bat pizten dute haize asko dagoenean eta, horren ondorioz, arriskua sortzen denean”.

Azken idatzi honen aurrean,

Lan Ikuskaritzak arrazoi eman dio LAB sindikatuari, “non esaten zaigun salatutako egoera benetakoa dela. Hala, enpresei arazo horiek konpontzeko agintzen die”. Lan Ikuskaritzak LAB-ek esandakoa egiaztatu ahal izan zuen urtarrilaren 16an, Osalaneo teknikariarekin batera erraustegiko obretara eginiko bisitan; “garabiak salatatu moduan gune berean ari direla lanean eta langileentzako arrisku larria zegoela. Era berean, Lan Ikuskaritzak prebentzio planean jasota egon behar zela dio, eta babeserako eta koordinaziorako neurriek hartuta egon behar zutela. Era berean, anemometroak egiaztatzeko eta konpontzeko agintzen du”.

“Instituzioek enpresa okerrenek bezala jokatzaren dute”

Lan hauetan prekarietatea ematen da, LAB-en esanetan, “arauak hausten dituenarentzat ondorioz ez dagoelako. Enpresek eta euren beste obra batzuen ardurdun politikoek, instituzioek, inpunitatez jokatzaren dute”.

Erraustegiko lanetan gertatzen ari dena ez da kasu isolatu bat sindikatuko esanetan, “sistematikoki hori da eraikuntzako sektorearen eguneroko ogia. Prekarietatea ez da zoriz gertatzen, arazo politikoa da, eta salatuta nahi ditugu bultzatu eta onartzen duten politikariak”.

Eraikuntzan ere lan baldintza duinak berma ditezkeela diote, baldin eta langileen eskubideak lehenesteko borondate politikoa badago. Zentzu horretan, “LABek lan baldintza duinak berreskuratzeko borroka egingo du eraikuntzan”.

Martxoaren 8an, planto egiteko deia emakumeei

Iaz 70 herrialde baino gehiagotan egindako deialdiarekin bat egin du aurten Euskal Herriko Mugimendu Feministak; emakumeak planto egitera deitu dituzte martxoaren 8an, greba egitera, “menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatuzeko”.

Greba deialdia, lan, ikasketa, zaintza eta kontsumo esparruetara zabaldu nahi dute.



Greba deialdia lan, ikasketa, zaintza eta kontsumo esparruetara zabaldu nahi dute.

Lau orduko lan uzteak egingo dira goiz eta arratsaldean. Egingo diren mobilizazioetan parte hartzera animatzeaz gain,

“Emakumeei dei egingo diegu zaintzak eta ugalketa lanak ez egitera, eta, grebaren seinale gisa, besoko morea jantzera, eta balkoi nahiz leihoetan amantalak eskegitzera. Era berean, ez kontsumitzeko deia ere egingo dugu”.

Informazio gehiagorako:

Grebara begira argitara eman duten manifestua eta informazio gehiago:

Twitter: @M8EuskalHerria
grebafeminista.wordpress.com

Gidabaimena euskaraz, errazago

Ez zuen bitan pentsatu behar izan. Hautu naturala izan zen berarentzat, 18 urte bete ostean, sarritan hartu ohi den bizitzako ohiko erabakietako batean euskararen aldeko apustua egitea. Gidabaimena ateratzeaz ari gara. Ekain Manterola Uribe gazte usurbildarrak argi zuen; errazago zitzaion zati teorikoa (gaurko euskaldundua dagoena) bere ama hizkuntzan prestatzea. Euskararekiko duen konpromisoa berretsiz, azterketa prestatu, landu eta gainditu zuen iaz.

Euskararen aldeko hautu-gatik saritu dute orain. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek autoeskolak euskalduntzeko 2010etik abian duten kanpainaren baitan, 18 urte betetzen dituzten gazteak gidabaimena euskaraz ateratzera animatu ohi dituzte, pizgarri ezinhobearekin; zati teorikoaren gastuak ordaintzeko adinakoak izan daitekeen 400 euroko hainbat sari zozketatzen ditu urtero. 2017an gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz landu eta gainditu zutenen artean,



Ekain Manterolak euskaraz atera du gidabaimena eta horri esker 400 euroko saria jaso du.

EKAIN MANTEROLA, SARITUA

Herrian bertan atera du gidabaimena. Usurbilgo Solozabal autoeskolan prestatu zuen azterketa

400 euroko 9 sarion zozketa egin zuten urtarrilaren 26an Potxoenean.

Saritueta bat izan zen aipatu moduan, Ekain. Pozik hartu zuen, saritua izan zela berri ematen zion Usurbilgo Udaleko telefono deia. "Ondator halako diru-laguntza", adierazi dio NOAAU!ri.

Herrian bertan atera du, So-

lozabal autoeskolan prestatu zuen azterketa. Zerbitzu osoa euskaraz jaso zuen; batetik irakaslearen azalpenak. Bestalde, hizkuntza berean zuen eskuragarri ikasteko materiala ere. Buruntzaldeko autoeskoletan zati teorikoa euskaraz lantzeko aukera dago, baina etorkizuneko erronka izaten segitzen du, zati praktikoa euskalduntzea. Aztertzaile euskaldunak falta dira, eta oro har, aztertzaile nahikorik ere ez da antza egun. Denbora luzez pairatu duten azter-tzaileen grebak eragin zion baita iaz Manterolari, nahiz zioenez, "neure lagun batzuk denbora gehiago zain egon diren".

Buruntzaldeko plana

2010ean ekin zioten Buruntzaldeko udal eta autoeskoletan, sektorea euskalduntzeari. Aurten lanketa honi segida emango diote. Maiatzean aurkeztuko dute 2018ari dagokion kanpaina. Ez da Buruntzaldeko udaleko euskara batzordeek bide-

raturiko duten egitasmo bakarra izango. Familia bidezko transmisioan, heziketa zikloetan edota euskaltegi-tako matrikulazioan eragiten segi nahi dute. Gai guztioi lotutako kanpainen testuinguruan, publiekurreportaje bana argitaratuko dugu

eskualdeko tokiko hedabideok datozen hilabeteotan, euskara batzordeekin elkarlanean.

Baina eskuartean beste hainbat ekintza garatzea ere aurreikusten dute sei udalek, 2018rako onartua duten planaren baitan.

Transmisioa, erabilera eta elikadura

2002az geroztik Buruntzaldeko udalak alor honetan bideratzen ari diren elkarlanarekin hiru helburu nagusiok bete nahi dituzte: euskara etenaldirik gabe belaunaldiz belaunaldi ondorengoetaratzea; euskararen erabilera sustatzea eta horretarako euskararen elikadura bultzatzea.

Euskararen ondorengoetaratzea bermatzeko familia bidezko transmisioan, heziketa zikloetan edota euskaltegiekiko elkarlanean eragiten segi nahi dute. Euskararen erabilera bultzatzeko, hainbat udal zerbitzuetako euskararen erabilerari lotutako ekintzak bideratzearekin batera, beste administrazioetan ere lanketa ezberdinak burutuko dituzte; hala nola herritarrak Errenta Aitorpena euskaraz egitera animatuko dituzte. Enpresa munduan, lan munduan ere eragiten jarraituko dute. Informazio eta komunikazio teknologien eremuan, euskararen ginkana ospatuko da berriz. Gogoan izan bestalde, Buruntzaldeko euskara batzordeek sarean atari propioa dutela, eta bertan jaso dezakezue egitasmo guztion gaineko informazioa, buruntzaldea.eus atarian.

Euskara elikatzen segitzeko berriz, Euskarazko Produktuen Katalogoa, edota "Apellidua abizendu" bezako egitasmoak sustatuko dituzte.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.eus

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

Jon Abril: “Diru laguntzek duten eragin soziala neurtzea da helburua”

Diru laguntza publikoen eraginkortasuna neurtzeko, Elhuyarrek eta Sinnple aholkularitza taldeak ‘Zirrara metodologia’ garatu dute. Usurbilgo eta Oñatiko udalak izan dira metodo berri hau aplikatu duten lehenak. Jon Abril Elhuyarreko kideak eman dizkigu prozesu honen xehetasunak.

NOAUA! Kirol eta kultur arloan, Usurbilgo Udalak 2016an eman zituen diru laguntzen eragina aztertu duzue. Zirrara metodologiaren bitartez egin duzue lan hori. Zertan datza?

Jon Abril. Metodologia berritzailer bat da. Inguruotan ez dugu horrelakorik ezagutu. Enpresa arloan, eraginkortasun soziala neurtzeko baliatzen den metodologian oinarritu gara.

N. Zirrarak diru laguntzen eraginkortasuna neurtzea du xede. Zentzu ekonomizista batetik soilik?

J. A. Alderantziz. Laguntzek duten eragin soziala neurtzea da helburua. Diru laguntza horien bitartez, gizarte mugimendu sendo bat aktibo mantentzen



Herri eragile eta udal ordezkariekin batera, Zirrara metodologia sustatzen ari da. “Bi aldeek dute irabazteko”, Jon Abrilek aditzera eman digunez.

ZIRRARA METODOLOGIA

“Orain, Udalak eta diru laguntzen onuradunek lanketa baterako tresna dute eskura. Gogoeta egiteko eta hainbat alderditan hobetu ahal izateko”

da. Ekitaldiak antolatzen dituzte gainerako herritarrentzat eta ia gehienak irekiak izaten dira. Gainera, hutsune batzuk betetzera datoz, Administrazioa iristen ez den jendearengana iritsiz. Kohesio sozial horretan,

herri eragileen ekarpena oso garrantzitsua da eta gurea bezalako kultura txiki batean are nabarmenagoa da betetzen duten funtzioa.

Ebaluazio moduko bat da, azken batean: jartzen diren baliabideak, bilatzen diren helburuak lortzeko izaten al dira?

N. Epe erdira edo luzera, laguntzak optimizatzeko asmo bat dago ahalegin honen atzean.

J. A. Hori da. Udaletxeetan hainbat asmo dituzte. Baina dirulaguntza deialdiak idazteko garaian, edo dirulaguntzak banatzeko garaian, asmo horiek

beharbada ez dira kontuan hartzen. Hor disfunczio bat egon daiteke. Demagun: emakume sortzaileak bistarazteko ahalegin bat egin nahi da. Baina hori ez bada ondo esplizitatzen, diru laguntzen oinarrietan inolako neurririk ez bada zehazten, ba zoriaren edo kasualitatearen esku uzten da. Kasu honetan, laguntzaren helburuetako bat ez gara betetzen ari. Beraz, helburu hori lortzeko, hurrengo deialdian puntuazio sistema aldatu beharko litzateke.

N. Irizpideak hobetzeko garaian, egindako azterketaren ondorioak lagungarriak izango dira.

J. A. Asmoa hori da. Egin dugun txostenak gomendio batzuk biltzen ditu. Jakitun gara guztiak aldi berean aplikatzea zaila dela. Orain behintzat, Udalak eta diru laguntzen onuradunek lanketa baterako tresna dute eskura. Gogoeta egiteko eta hainbat alderditan hobetu ahal izateko. Zentzu horretan, bi aldeek dute irabazteko hemen. Argazki honek erakusten du diru laguntzekin zer lan egiten den eta ze funtzio sozial betetzen duten.

Usurbilgo eta Oñatiko udalak, aitzindari

NOAUA! Laguntzak eman eta jaso egiten dira. Metodologia honek emalleari bezain beste eragiten dio hartzaileari, ezta?

Jon Abril. Elkarte bezala laguntza bat jasotzen dugunean, ardura sozial bat eta ardura publiko bat dugu. Diru publikoa guztiona da eta diru horrekin egiten den erabilerak arduratu behar gaitu. Elkarte bezala herritarrentzat ari bagara, balio beharko liguke gogoetarako, ea egiten ditu-

gun gauzetan gure helburuak lortzen ari ote garen. Beraz, bi aldeentzako da onuragarri. Hausnartzeko eta hobetzeko tresna bat.


N. Lanketa honetan, Usurbilgo taldeen jarrera ona izan al da?

J. A. Onuradun diren elkarte horien parte hartzea oso garrantzitsua izan da. Ez diegu langintza erraza ipini, abstrakzio puntu bat ere baiduelako metodologia honek,

baina elkarte askok egin duten ahalegina nabarmendu nahi dut. Euren ikuspegia txertatua gera zedin saiatu gara eta azken emaitzan igartzen dela esango nuke.

N. Elhuyarrek eta Sinnple aholkularitza taldeak sustatu duzue Zirrara metodologia. Usurbilgo eta Oñatiko udalak izan dira ekimen honekin bat egin duten lehen udalerrriak. Aitzindariak izan direla esan daiteke, ezta?

J. A. Bai, eta eskertu egin behar zaie erakutsi duten prestutasuna. Esperimentatzeko euren denbora eta ahalegina eskaini diotelako metodologian honi. Gauza berri bat sortzera zoazenean ausardia behar da eta kasu honetan bi udalek prestutasuna erakutsi zuten. Guregan konfiantza handia jarri zuten. Jakin badakigu oso pozik geratu direla emaitzarekin eta hori oso pozgarria da guretzat.



Usurbilen kultur arloan ematen diren diru laguntzak Zirrara metodologiaren bitartez aztertu eta gero, "argazki" hau izan da 2016ko jardueraren emaitza.

“Herri eragileek ahalegin handia egin dute”

NOAUA! Usurbilen, nolakoa izan da esperientzia?

Jon Abril. Oso aberatsa eta bizi samarra. Lehen fasean bereziki, lan handia eman diegu udal ordezkari, teknikari, zein politikari. Dena den, hasieratik saiatu gara euren lana errazten. Aipatu nahiko nuke herri eragileek ere ahalegin handia egin dutela. Ohituta ez dagoen batentzat, metodologiaren zenbait gauza arrotz izan daitezke. Aisialdi talde bateko begirale bat bazara, adibidez, ba seguru arrotza egingo zaitzula inpaktuaren logika ulertzea. Horren jakitun baginen. Saiatu gara dinamika ahalik eta errazen egiten eta, hala ere, prestutasun handia erakutsi dute denek. Eskertzekoa da. Amaitu genuenean eta emaitzak ikusi zituztenean, zenbait

gauza hobeto ulertu zituzten.

N. “Mutil hau gure lana fiskaliztzeraz dator”. Antzekorik pentsatuko zuenik ere izango zen, ezta?

J. A. Hasi ginenean, Oñatiko batetik zera galdetu zigun: “honekin diru gutxiago emango al diguzue?”. Neurri batean, logikoa da beldur horiek azalratzea. Batez ere, ezezaguna den baten aurrean. Baina metodologia honen asmoa ez da hori. Ematen diren diru laguntzak optimizatea da helburua. Alegia, laguntzak lortu nahi diren emaitza horietara bideratzea.

N. Usurbilen eta Oñatin aritu zarete. Bi herrietan paretsu joan al dira gauzak?

J. A. Usurbilen oso jarrera iriakiarekin parte hartu dute denek. Hori eskertzekoa da eta



Jon Abrilen esanetan, “ematen diren laguntzak optimizatzea da helburua”.

asko esaten du aldi berean.

Oñatin adibidez, ez zen posible izan. Kilometroak-en dinamikan murgilduta zeuden garai horretan eta horregatik bi herrien artean alde handia sumatu dugu. Herriko taldeen parte hartzeak asko laguntzen baitu; bidea asko errazten du.

2018. urtea, trantsizio urtea

Aurtengo kultur arloko diru laguntza deialdian, eragileekin batera Zirrara prozesuan definitutako helburua hartu da kontuan. Halaxe adierazi digu Alaitz Aizpurua udal zinegotziak. “Eranskinetan ere aldaketa txiki batzuk sartu ditugu, zenbait kontu hobeto neurtzeko”. Dena den, ez da aldaketa esanguratsurik izango aurtun. “Aldaketak guztian adostasunarekin egitea garrantzitsua da eta horretarako lanketa egokia egin beharko dugu. Beti ere, hobetzeko eta denen artean jarritako helburuak lortzeko”. Irizpide berriak ondo definitu eta balizko aldaketak 2019ko deialdian txertatzea aurreikusten dute udal ordezkariak.

Mozorro festak Ikastetxeetan

Otsailak 9, ostirala

Udarregi Ikastola

■ 10:15ak aldera HHko ikasleak, urteroko mozorro bitxiekin, herriko frontoira jaitsiko dira beraien dantzak egitera. Frontoian 10:30etan. Eguraldi txarra egingo balu, HH-ko dantza festa Oiardo Kiroldegian ordu berean. Kiroldegira sartzeko sarrera irekia egongo da denentzat.

■ 11:00 Bi autoen atzetik, LHko ikasleak eta aurtan, DBHko ikasleak LHko ikasleen artean gehituz, urteroko "Martxa" dantzatu dute herria 2 ibilbideetan zeharkatuz; bat, Kaxko ingurutik eta bestea, Kalezar ingurutik, herria alaituz...

■ 11:45 DBHko ikasleek beraiek antolatutako dantzak eta mozorroak aurkeztuko dituzte Oiardo Kiroldegian, LHko ikasleak eta nola ez, DBHko gurasoak gonbidatuz.

■ 15:30 LHko ikasleek gogotsu



Aginagan ostiralean hasiko da festa, 15:00etan Eliza Zaharretik abiatuta.

aurkeztuko dituzte Oiardo Kiroldegian, beraien mozorroak eta dantzak. Hauek baita ere oso ongi landuz, HHko ikasleak eta LHko gurasoak gonbidatuz.

■ Oharra: Udarregitik, DBHko eta LHko gurasoei Oiardo kiroldegira sartzeko sarrerak banatu egingo zaizkie. Sarrerarik soberan geratuko balitz, Kiroldegian bertan banatuko lirakeke, egunean bertan, aforoa bete arte. Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

Otsailak 9, ostirala

Aginagako Eskola

15:00 Aginagako Eskolako



Zubietan ere, ostiralean ospatuko dute. 15:30ean hasiko da kalejira.

kideen emanaldia Eliza Zaharrean.

Unibertsoa hautatu dute mozorrotzeko gaia aurtan. Gai honi lotutako koreografiak eskainiko dituzte.

Otsailak 9, ostirala

Zubietako Eskola

■ 15:30 Inauterietako kalejira Zubietako Eskola Txikitik abiatuta, Alamandegin, Barazarren eta Zubietako plazan egingo dituzte geldiuneak. Aurtengo gaia: musikalak.

Amaieran, Guraso Elkarteak prestatutako askaria.

Inauteri festa Usurbilen

Otsailak 9, ostirala

■ 19:30 'Uztaritzeko Inauteriarik' Orbeldi Dantza Taldearen eskutik. Irteera Kiroldegitik. Azken saioa Mikel Laboa plazan, 20:30ean.

Otsailak 10, larunbata

- Gaia: pertsona ezagunak.
- 12:00 Burrunbazale txaragarekin kalejira Mikel Laboa plazatik, bazkalordura arte.
- 12:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 16:00 Karaoke festa Gaztelekuan. "Mozorrotuta etorri!".
- 17:00 Txistulariak, erraldoiak eta buruhandiak udalaxe paretik.
- 17:30 Bingoa Gaztelekuan.
- 18:00 Diskofesta Gaztelekuan.
- 18:30 Burrunbazale txaragarekin kalejira frontoitik.
- 20:30 Amaiera ekitaldia frontoian.

Otsailak 12, astelehena

■ 16:30 Inauterietako taillerak Bihurri ludotekan.

BAZKIDEEEN TXOKOA



Otsailaren 9an ZOZKETATUKO DUGU:

IRUIN
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI

noaua! euskararen aterpe

Burrunbazale, Usurbil dantzan jartzera

Ezagunak ditugu Ordi-ziako Burrunbazale txarangakoak, besteak beste, urteak daramatzate Inauteri Festa alaitzen. “Eskertzen da usurbildarren konfiantza” adierazi diote NOAUA!ri. Gus-tura itzuliko dira aurten ere. Goiz eta arratsalde ibiliko dira kalean gora eta behera. Eguerdian Kantu Taldekoekin batera abiatuko dute saioa. Iluntzean frontoian amaituko dute, bertaraten direnak dantzan jarriz. Badakizue, animatu eta segi txarangakoen bidetik!

Zer berezitasun ditu Usurbilgo plazak?

Iker Gomez, Burrunbazale txarangako kidea: Ni ere kide naizen gipuzkoar izaerako herri tipiko bat dela uste dut. Besteek esango dutenarekiko erreparoa izaten dugu, pixka bat denak gara halakoxeak. Inauterietan mozorrotzen gara eta kuadrilan gaude baina formak zaindu edo gordetzen ditugu. Ez da sekulako zalaparta egoten txarangaren inguruan, jendea ez da gure atzetik saltoka ibiltzen, alde horretatik moderazio handi samarra dugu. Kasuotan, txarangaren funtzioa jendea girotzea eta fondoko musika hori jartzea da, jendea kalean egon, tabernaz taberna ibili edo ikusmiran dagoen artean. Estimaten den zerbait bada txaranga.

Sarritan musikari eta publikoaren artean egon den distantzia murrizteko trikimailu edo estrategiarik izaten al duzue?

Batetik, publikoaren arabera moldatzen dugun erreper-torioa. Kasu honetan inauteriak izanik, inauterietako pieza dezente jotzen saiatzen gara. Bestalde, musikaz gain beste zerbait ematea. Baditugu gu ere saltoka jartzen gaituzten koreografia txikiak. Eta jendeak zer nahi duen behatzea izaten da beste gakoetako bat.



Urteak daramatzate Inauteri Festa girotzen. Aurten ere, hala izango da.

BURRUNBAZALE

“Larunbatean, goiz eta arratsalde ibiliko gara. Eta aurten lehen aldiz, ia ordubeteko dantza saioa egingo da iluntzeko 20:30ak aldera frontoian”

Txaranga batek zer formatutan funtzionatzen du ondoen?

Indar metaketak aberasten du kalejira. Trikitilariak, erraldoi eta buruhandien konpartsa, kantu-jira eta txaranga nahasteak desfileari aberastasun polit bat emango lioke. Zenbat eta elkarte gehiago eta desberdina-go aldi berean jarri bakoitzak dakiena egiten, horrek denak aberastu, osatu eta ikusgarritasuna ematen dio kalejirari.

Txarangek inoiz baino arrakasta gehiago dutela dirudi egunez, jendetza mugiarazten duzue.

Txaranga gehiago hartzen dituzte eguneko ekintzetarako, gaueko ekintzetarako baino. Guk urtean zehar eskaintzen ditugun emanaldi gehienak egunez dira. Jada txarangak emanaldien %95a egun argitan eskaintzen ditu.

Zein izan zen txarangaren abiapuntua?

Musikarako tradizioa aspaldikoa izan arren, Ordiziako lehenengo txaranga da. 2006an sortu zen, Beti Argi musika bandaren testuinguruan. Musi-

ka zaletasunak lotzen gintuen lagun talde bat geunden musika bandan gustura. Baina guk txarangak ahalbidetuko zigun beste ildo bat landu nahi genuen.

Zer eman dizue hamarkada bate-tik gorako ibilbideak?

Jatorrizko helburuak bete dira pertsonalki eta talde mailan. Jai garrantzitsu askotan egon ahal izan gara eta gainera festak barru barrutik bizitzen, txarangari esker. Laguntasun eta musika esperientzia gisa, herriak eta festak ezagutu ostean, heburua zalantzarik gabe beteta. Maila pertsonalagoan, taldeak erakutsi digu baita gure buruaren jabe izan behar dugula; lagun garenean dena errazagoa dela baina gero entseguen dinamikan sartzen zara, hor ere antolaketa bat behar da. Taldea nahiko berezia da, ez du zuzendaririk, irekiak eta anarkista samarrak gara.

“Aurten gehiago luzatuko dugu emanaldia”

NOAUA! Zer ekarriko diguzue larunbatean?

Iker Gomez Aurten normalean baino gehiago luzatuko dugu emanaldia. Iaz bezala goiz eta arratsalde ibiliko gara, eta aurten lehenengo aldiz, ia ordubeteko dantza saio txo bat egingo da iluntzeko 20:30ak aldera frontoian. Ia jendea animatzen den. Inauterietako erreper-torioa denetariko abestiekiz uztartzen saiatuko gara. Inauteri on opa dizuegu usurbildarroi!

“Txaranga ez dugu zama izatea nahi”

Zuen hainbat asteburu desberdinak izango dira. Nola uztartzen duzue eguneroko bizimodua txarangarekin?

Hori ere dezente argi izan dugu, nahi duguna egiten dugu nahi dugun bitartean. Ez dugu gure agenda betetzen betetzeagatik edo dirua irabazteagatik. Festetan jotzeko aukera izan arren, abuztuan oportetara joaten gara hala egin nahi dugulako. Urtean zehar ere guk nahi ditugun emanaldiak eskaini ohi ditugu. Txaranga ez dugu zama izatea nahi.



Euritearen ondorioz, Zubietatik Lasarte-Oriarako kalejira bertan behera utzi behar izan zuten. Bi herrien arteko “senidetze-ituna” Lasarte-Oriako Loidibarrren frontoian sinatu zuten. Argazkian dituzue pasa den larunbateko ekitaldian parte hartu zuten zubietar ordezkari batzuk.

Konpostagailua bete zaigu eta non hustu behar dugu organikoa?

Kaixo guztioi! Gu, Udarregi ikastolako HH4ko haurrak gara eta gelan gauza asko egiten dugu; jolas-tu, marraztu, dantzatu, irakurri, eta abar.

Baita hamaiketako ere! Eta hamaiketakoan sortzen dugun

zaborra birziklutzerara eramaten dugu txandaka-txandaka. As-teazken eta ostiraletan gelako ontziak hustu eta zaborrontzi handietara eta konpostagailura eramaten dugu gure zaborra.

Orain konpostagailua bete zaigu eta non hustu behar dugu organikoa?

Aita-ama, anai-arreba nagusi, amona-aitona, izeba-osaba, bizilagun... animatzen bazarete guregana etorri eta esango dizuegu zertan behar dugun laguntza! Eskerrik asko!

HH4ko haurrak.



“Asteazken eta ostiraletan gelako ontziak hustu eta zaborrontzi handietara eta konpostagailura eramaten dugu gure hondakina”.

Ostiraletako zinea, astebete barru

Udarregi Ikastolako DBH4-ko gazteek Usturbilgo Udalaren laguntzaz antolatutako zine zikloaren hurrengo saioa, otsailaren 16an 19:00etan Sutegin. Oraingoan, “Aintza (Slava)” proiektatuko dute jatorrizko bertsioan, euskarazko azpitituluekin, 12 urtetik gorakoentzat. Sarrerak egunean bertan izango dira, 2 eurotan salgai.

“Goiz batean, Tsanko Petrovek, trenbideetako langileak, diruz betetako poltsa bat aurkituko du trenbidean. Poliziari abisatzea erabakiko du. Garraio Ministerioko agintariak, korrupzio kasu



Otsailaren 16an Aintza (Slava) filma eskainiko dute, jatorrizko bertsioan.

batengatik egun horietan egunkarietako lehen orrialdean ageri direnek, Petrov saritzea erabakiko dute bere jokabideagatik, era horretan berri on bat emateko asmoz. Eskumuturreko erloju bat oparitutako diote ekitaldian,

eta daramana kenduko diote: aitak oparitutako glory bat. Bere erloju berreskuratzen saiatu bitartean, galdu egin dutela jakingo du. Hemen hasten da bere erloju zaharra eta bere duintasuna lehengoratzeko ekingo dion borroka”.

Bihurri ludotekako oharra bazkideei

2018ko kuota ordaintzeko epea otsailaren 28an amaituko da. Bazkide berriek 30 euro, jada bazkide direnek 10 euro. Ordainketa kontu zenbaki honetan egin behar da: ES3230080259103545905527 (Rural Kutxa).

Bestetik, ludoteka utziko duten gurasoei oharra: “ludotekako bazkide izateari uzten dioten familiei giltza itzuli dezatela eskatzen diegu”.

KzGunea, otsailean goizez

Otsailean goizez egongo da zabalik, 09:00-13:00 artean. Hainbat ikastaro iragarri dituzte.

Xake zaletuentzako deialdia

Xake zaletuek egoitza propioa dute Oiardo Kiroldegian. Aurrerantzean, ostiral arratsaldero bilduko dira bertan, 18:00-20:00 artean. Xake zaleen bilgunea izan nahi nahi du, zaletasunari bide eman eta noizbehinka txapelketaren bat antolatzeko tokia. Adin guztietako xake zaletuei Kiroldegira gerturatzeko gonbita luzatzen diete taldetik, NOAUA!ra helarazi duten idatziz honen bidez:

“Pasa den asteko ostiralean lehendabizikoz izan ginen polikiroldegiko eraikinean, xakean jolasten. 15 bat haur eta baita heldu batzuk ere bildu ginen bertan, eta xakean jolasten pasa genuen denbora, 18:00etatik 20:00ak arte. Astero bilduko gara bertan ordutegi horrekin, eta gunea, leku ireki bat da herritar ororentzat, haur

zein heldu, eta usurbildar xake zaleon artean elkar ezagutzeko aukera paregabea dugu. Asmoa, tarteka txapelketa bat antolatzear gain, adin ezberdineko xakelarien artean jolasteko aukera egotea da.

Eskolan xakera jolasten diren haur dezente bertaratu ziren, baina deialdi berezi bat egin nahi diegu, herriko xakelari helduei, xakea adin guztietan praktika daitekeen kirola izanik, aprobetxatu behar baita. Beharbada entzungo zenuen, xakea garunarentzat bikaina dela (nahiz eta egia esan, hainbesterako ez den...), eta agian, pentsatu duzu ideia ona dela zure seme alabak xakean apuntatzea... Baina, zergatik ez zara animatzen zu zeu xake taldean parte hartzera?

Jakin badakigu badela profil hau zenbait herritarrengan hedatua, baita telefono bidez



Aurrerantzean, ostiralero elkartuko dira Kiroldegian.

xakean egunero aritzen direnak. Ziurrenik, uste baino zaletasun handiagoa dago azaleratzeko... Ea udalak utzitako tokia ostiraleko betetzeko gai garen, eta nork daki, agian denborarekin, xake talde bat izan dezake Usurbilek!

Gazteenak jada gogotsu dabilta, eta horietako batek taldearentzat kamisetak egiteko ideia hartu, eta aurrera eramaten ari da. Zu ere animatzen parte izatera?”

Oriako 24. Jaitsiera, otsailaren 17an

Errioa arraunlarien topagunean bilakatuko zaigu otsailaren 17an ospatuko den Oriaren 24. Jaitsierarekin. Arratsaldez ospatuko da proba, 16:00etan hasita Aginagatik. Ohi bezala, bi distantzian jokatu da proba. 6 kilometrokoan parte hartuko dutenak Mapiletik abiatuko dira, 4 kilometroko saioan lehiatuko direnak Saikola paretik. Guztiek Orion izango dute helmuga. Jaitsieraren harira, arraun feria antolatu du Orio Arraun Elkarteak arraun etxean, otsailaren 16an eta 17an.



Jaitsieraren harira, arraun feria antolatu du Orio Arraun Elkarteak Arraun Etxean, otsailaren 16an eta 17an.

Eskubaloit partidak Oiardo Kiroldegian

Otsailak 10, larunbata

- 11:00 Kadete neskek, Territoriala: Usurbil K.E.-Bidasoa Irun
- 16:00 Jubenil neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Pulpo

Futbol partidak Haranen

Otsailak 10, larunbata

- 16:00 Erregional mutilak: Usurbil F.T.-Iluari F.K.

Otsailak 11, igandea

- 10:00-13:00 Futbol Eskola, alebinak: Usurbil F.T.-Allerru K.J.K.E.
- 10:00-13:00 Futbol Eskola, benjaminak: Usurbil F.T.-Pasaia K.E.

Pilota partidak

Otsailak 9, ostirala,

19:00etan Aginagako frontoian

Eskuz binaka jubenilak 1.maila Pagazpe 2 / Tolosa Aurrera 1

Gipuzkoako Biraren bigarren etapa

Zumaia-Saturraran 22 kilometroko ibilbidea osatzeko gonbita luzatua du Andatza M.K.T.-k igande honetan, urtarrilaren 11n. Hilaren 7a baino lehen izena eman zutenentzako igande goizeko 07:30ean finkatu dute biltzeko hitzordua Oiardo Kiroldegian, autobusez Zumaiara abiatzeko. Janaria norberak eta edaria antolakuntzak eramango du. Txangoetan ezinbestekoa da mendiko federatua izatea. Informazio gehiago: andatza.com

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrena, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

ARRANDEGIA PELLO
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA 9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUN 17:00-19:30
ORDUTEGI ETA TELEFONO BERRIA!
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94 USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m² terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garaiea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garaiea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garaiea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garaiea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garaiea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garaiea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Pisua edo gela alokatzen da Santuenean. Oso ondo dago. 667 912 307 / 626 428 463 / 607 668 603

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661

115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta, garaieak

Peugeot Partner bat salgai. Diesela. 110 zaldi. 2009. urtekoa. 140.000 km. 665 71 53 21

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garaiea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da, karta-rekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lan egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziakin. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garaieak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221



Zorionak Eire!

Jada 10 urte!
Muxu handi
handi handi bat
etxekoan partez.



Zorionak

Haritz!

Otsailaren
8an 10 urte
beteko dituzu.
Muxu handi
bat familiaren
partez.



Zorionak Nora! Eta urte
askotarako! 10 urte. Mu-
xuak familiaren partez.

Heriotzak

Juan Jose Salsamendi

Amunarriz 89 urterekin
hil zen otsailaren 2an
Zubietan



Jose Francisco Arruti

Lizaso 67 urterekin
hil zen otsailaren 2an
Usurbilen



Maria Lazcano

Echezarreta 91 urterekin
hil zen otsailaren 3an
Usurbilen



OHARRA: 2018ko otsailaren 16an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: otsailaren 12an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Espe-rirentziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna mo- duan, eginez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, anima- liak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina gar- bitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona hel- duak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatze- ko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskain- tzen da oporretan umeak zain- tzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, kla- se partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaz- teleran, ingelesean eta frantse- sean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, or- duka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostirale- ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, or- duka, gauetan... edozein modu- tan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egi- teko. Irterna moduan, orduka edo gauzez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lan- ean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo

adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke or- duka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldar- earen ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxe- tan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona hel- duentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo

nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbike- tan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldar lan egin- go nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila da- bil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zain- tzen edo garbiketa lanetan. Bere- hala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo hel-

duak zaintzen edo etxeak garbi- tzen. Tel 632 587 450.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko pertsona baten bila gabilta Aginagan. Batxilerra lehenengo maila. Matematika eta kimika. 690 367 952.

Udarregi Ikastolan klase partiku- larrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo auto- bus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an katurua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta es- kubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxe- ko membrilloa salgai. Interesatzu gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko ni- tuzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arra- zakoak saltzen dira. Telefono zen- bakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati- neteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehe- netik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskatel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 08 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 09 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 11 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 13 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Otsailak 08 - Otsailak 18

Osteguna 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 17 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda otsaila

09 ostirala

- **Inauteriak ikastetxeetan.** Ikus 12 or.
- **Inauteri Festa: Orbeldi Dantza Taldearen kalejira.** 19:30ean emanaldia herrian zehar. Irteera Oiardo Kiroldigitik. 20:30ean Azken saioa Mikel Laboa plazan.

10 larunbata

- **Sagarrondotik sagardora ikastaroa.** "Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa". 09:00-13:00, Potxoenean.
- **Inauteri Festa.** ikus 12 or.

11 igandea

- **Gipuzkoako Bira, 2. etapa: Zumaia-Saturraran.** 07:30ean, Oiardo Kiroldigitik autobusez. Izen ematea otsailaren 7an amaitu zen.

‘Sagarrondotik sagarrondora’ ikastaroa hastera doa

Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak antolatu du ikastaro teoriko-praktikoa. Zortzi saio aurreikusituz eta ikastaro osoa Potxoenean burutuko da, kimaketa praktikak izan ezik. "Hauek bertako sagastietan egingo dira", antolakuntzak ohartarazi duenez.

Saioen egutegia:

- Otsailak 10: "Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa", Aitor Etxeandiarekin.
- Martxoak 3: "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak", Aitor Etxeandiarekin.
- Martxoak 17: "Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa", Josu Osarekin.
- Apirilak 7: "Garbitasuna sagardoaren kalitatearen lagun. Sagardoa egurrezko ontzietan eta sagarrondoaren bizimodua", Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondorekin.
- Apirilak 21: "Ilargia eta egutegi biodinamikoa", Xabier Akizurekin.
- Ekainak 2: "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak", Aitor Etxeandiarekin.
- Uztailak 14: "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa", Josu Osarekin.
- Irailak 8: "Sagarraren heldutasun ana-



Saioak Potxoenean egingo dira, 9:00etatik 13:00era. Larunbat honetan, Aitor Etxeandia neguko kimaketaz eta ongarriketaz arituko da.

lista. Etxean sagardoa egiteko hastapenak", Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiainekin.

Prezioa:

96 euro ikastaro guztiko saioak, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Egun solteetan ere izena eman daiteke. Horretarako Alkartasuna Kooperatibarekin harremanetan jarri.

Izen ematerako eta argibide gehiagorako:

943 361 114
 alkartasuna@usurbil.com
 alkartasuna.eus/euskara/produktuak/ikastaroak

Datozenak

Gure Esku Dagoren solasaldiak Sutegin

Herritarren Ituna lantzen hasteko, Gure Esku Dago mugimenduak hitzaldi zikloa antolatu du. Otsailaren 14an herritartasunaz arituko dira Iruñean. Sutegin streaming bidez eskainiko dute hitzaldia. 19:00etan hasiko da hitzaldia.

Otsailaren 21ean, "Gure lurraz" arituko dira Gasteizen eta hau ere streaming bidez zuzenean jarraitu ahal izango da Sutegin.

Otsailaren 25ean, Tipi Taparen itzulera

Bueltan dator Hurbilagok antolaturiko ekimena. Bakailao pintxo bereziaz gozatu ahalko da otsailaren 25ean, Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirristran. 150 euroko erosketa balea eta 20 euroko bi bale zozketatuko dituzte amaieran.



Bakailao pintxo berezia banatuko dute otsailaren 25ean.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

INAUTERIAK 2018 USURBIL

Euskal Herriko pertsonaia ospetsuak



Otsailak 9, ostirala

Orbeldi Usurbilgo dantza taldearen emanaldia herrian zehar

19:30 Kiroldegitik aterata kalejira.

20:30 Mikel Laboa plazan azken saioa.

Otsailak 12, astelehena

16:30 Bihurri ludotekan Inauterietako tailerrak.

Otsailak 10, larunbata, INAUTERI FESTA

12:00 Mikel Laboa plazatik abiatuta, BURRUNBAZALE txarangarekin kalejira bazkalordura arte.

12:00 Mikel Laboa plazatik abiatuta, kantu-jira.

16:00 Karaoke Festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!!!

17:00 Udaletxetik, herriko txistulariak, erraldoiak eta buruhandiak.

17:30 Bingoa Gaztelekuan.

18:00 Diskofesta Gaztelekuan.

18:30 Frontoitik BURRUNBAZALE txarangarekin kalejira.

NOQUA



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 6ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrel
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zuegandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubietza

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea